

2023ko MAIATZEKO HAUTESKUNDEAK

- HAUTESKUNDE ERROLDAREN BULEGOA-

ALDI BATERAKO ATZERRIAN DAUDEN HAUTESLEEK BOZKATZEKO ESKAERA
– ORRI OSAGARRIA –

Orri osagarri honekin batera doan inprimakia hautesleak bete beharko duen eskabide-eredua da, **maiatzaren 28an** egingo diren hauteskundeetan botoa atzerritik emateko eskubidea gauzatzeko dokumentazioa dagokion Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzatik jasotzeko.

NORK ERABIL DEZAKE ALDI BATERAKO ATZERRIA DAUDEN HAUTESLEEN BOZKETA-PROZEDURA??

Hauteskunde-deialdia egin ondoren, aldi baterako lurralde nazionaletik kanpo dauden hautesleek eman ahal izango dute botoa prozedura honen bidez, baldin eta egoera horretan egotea aurreikusten badute bozketa-egunera arte eta Matrikula Kontsularraren Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta badaude.

Matrikula Kontsularraren Erregistroko eskaera eta inskripzioa ekitaldi berean egin daitezke.

Posta bidezko botoa eskatu eta onartuz gero, ezin izango du pertsonalki bozkatu.

BOZKATZEKO PROZEDURA:

A. ESKAERA

Eskabide-orria Karrerako Bulego Kontsularran edo Enbaxadako Atal Kontsularran jaso daiteke, edo telematikoki deskargatu Barne Ministerioaren webgunetik (www.infoelectoral.interior.gob.es) edo Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministeriotik www.exteriores.gob.es

Hauteslea hautesle-erroldan inskribatuta dagoen probintziako Hautesle Erroldaren Bulegoko Ordezkaritzara zuzendu behar izango da eskabidea.

B. AURKEZTEKO LEKUA

Eskabidea, beteta eta sinatuta, Karrerako Kotsuletzeko Bulegoan edo Enbaxadako Kotsuletzeko Atalean pertsonalki aurkeztu behar da. Kotsulatuko funtzionarioak identifikatzeko eskatuko dio hautesleari nortasun-agiria edo pasaportearen erakutsiz, eta Kotsulatuko Matrikularen Erregistroan ez-egoiliar gisa inskribatuta dagoela egiaztatuko du, bai eta sinadura bat datorrela ere.

Karrerako Bulego Kontsularrak edo Enbaxadako Atal Kontsularrak eskaera berehala bidaliko dio dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzari.

C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Deialdia egiten den egunetik **apirilaren 29ra arte** eska daiteke.

Hala ere, eskaera **lehenbailehen egitea gomendatzen da**.

D. POSTA BIDEZKO BOTOA EMATEKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEA

Dagokion Hauteskunde Erroldaren Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzak **maiatzaren 2an** hasiko du hauteskunde-dokumentazioa bidaltzen. Eskabidean adierazitako helbidera eta zure izenean bidaliko da.

Agiri horiek jaso izanaren agiria interesdunak berak sinatu behar izango du, bere nortasuna egiaztatu ondoren.

E. POSTA BIDEZKO BOTOA BIDALTZEKO EPEA

Botoa posta ziurtatu bidez bidali behar da, maiatzaren 24a baino lehen.